

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**

Prestakuntza-ekintzak egiten dituzten Zamudioko udalerriko langabeen enplegua sustatzeko dirulaguntzen programara sartzeko deialdia eta oinarri arautzaileak.

Mankomunitateburuaren ekainaren 15eko 421/2021 Dekretuaren bidez, Zamudioko udalerrian langabeen enplegua sustatzeko prestakuntza-ekintzak egiten dituzten dirulaguntzen programan sartzeko dirulaguntzak emateko deialdia onartu da.

Derion, 2021eko ekainaren 16an.—Mankomunitateburua, Josu Andoni Begoña Fdez. de Arroiabe

**OINARRIAK ETA DEIALDIA, PRESTAKUNTZA-EKINTZETAN ARI DIREN ZAMUDIO
UDALERRIKO ENPLEGUGABEEN ARTEAN ENPLEGUA SUSTATZEKO
DIRULAGUNTZA-PROGRAMAN PARTE HARTZEKO****1. oinarria. – Deialdiaren xedea**

Oinarri eta deialdi hauen xedea da prestakuntza-ekintzetan ari diren pertsonen dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea; pertsona horiek langabezian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda eta Zamudion erroldatuta egon behar dute.

2. oinarria. – Pertsona onuradunak

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izan daitezke betekizun eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- a) Zamudion erroldatuta egotea, gutxienez 2020ko martxoaren 1etik. Ofizioz egiaztatuko da.
- b) 18 urte edo gehiago izatea 2021eko urtarrilaren 1ean.
- c) Langabezian edo enplegua hobetu beharrean egotea. Laguntza hauen ondorioetarako, enplegua hobetu behar izatea da lanean egotea eta asteen 20 ordu baino gutxiago egitea lanean.
- d) Egin beharreko prestakuntza-ekintzak Txorierriko Zerbitzu Mankomunitateko (Egaz Txorierri) Tokiko Garapen Agentziak onartuta egon behar du, «Egokitasun-kontrastea» egiteko, pertsonaren lanbide-profilaren arabera.
- e) Prestakuntza-ekintza erabat gainditzea, hau da, prestakuntza-ekintza eta hura osatzen duten irakasgai guztiak gaindituta izatea.

3. oinarria. – Diruz lagun daitezkeen jarduketak

Prestakuntza horren helburua da enplegarritasuna hobetzea eta lan-merkatuan sartzeko aukerak handitzea. Ildo horretan, diruz lagundu ahal izango da enplegarritasuna areagotzen duen edozein ikastaro egitea, hizkuntza-ikastaroak eta gidabaimenak albo batera utzita, gidabaimen profesionalak izan ezik.

Prestakuntza-jarduera bakar baterako eskatu ahal izango da dirulaguntza, hau da, pertsona bakoitzak ezin izango du dirulaguntza-eskabide bat baino gehiago egin.

4. oinarria. – Diru-baliabideak

Deialdiaren diru-zuzkidura 15.000,00 eurokoa izango da guztira, «Enplegu sustapena» izeneko 241 43300 aurrekontu-partidaren kargura.

5. oinarria. – Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 750 eurokoa izango da.

Hauek dira diruz lagun daitezkeen gastuak:

- Prestakuntza-ekintzaren kostua. Ekintzaren benetako zenbatekoa diruz lagunduko da.
- Ikastetxerako garraio-gastuak: benetako zenbatekoa lagunduko da diruz; 50 euro gehienez.
- Material-gastuak: benetako zenbatekoa lagunduko da diruz; gehienez 200 euro.

Oro har, joan-etorriak garraio publiko kolektiboetan egingo dira, salbu eta, kasu bakoitzaren inguruabarrak kontuan hartuta, norberaren ibilgailua edo beste bitarteko bat erabiltzea komeni bada. Gorabehera horiek diru-laguntzaren eskabidean adierazi beharko dira.

Bidaia-gastuak txartelaren zenbatekoaren arabera ordainduko dira, eta norberaren ibilgailua erabiltzen bada, egindako ibilbideari dagokion zenbatekoaren arabera, Zamudio udalerria abiapuntutzat eta itzulera-puntutzat hartuta (norberaren ibilgailua erabiltzeagatik, diru-laguntza: 0,29 euro/km).



Prestakuntza-ekintza egiteko behar diren material-gastuak ordainduko dira. Gastu horien artean onartuko da liburuak eta material didaktikoa edo informatikoa (hardwarea zein softwarea) erostea, baldin eta material horiek derrigorrezkoak direla egiaztatzen duen agiria aurkezten bada, prestakuntza-ekintza eman duen zentroak emana. Ez da inola ere diruz lagunduko smartphoneak edo telefono mugikorrek erostea.

6. oinarria. – Laguntzen arteko bateragarritasuna

Oinarri hauetako eta deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak ez dira bateragarriak izaera edo helburu berberarekin beste administrazio batek edo beste entitate publiko edo pribatu batek eman dion dirulaguntza edo laguntzarekin.

7. oinarria. – Eskabideak aurkeztea

Prestakuntza-ekintzak egiteko laguntza-eskabidea, eskatutako dokumentazioarekin batera, oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2021eko urriaren 31ra bitartean aurkeztu ahal izango da.

- a) Lekua eta ordutegia:
Dirulaguntza-eskabidea, eta dokumentazioa, aurkezteko moduak:
 - Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko egoitza elektronikoan.
 - Sarrera-erregistroan: Derion, Txorierriko Etorbidea 9 zenbakian, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era.
- b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa:
Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Dirulaguntza lortzeko eskaeran dokumentu hauek sartu beharko dira:
 - Langabeek edo enplegua hobetzeko egoeran daudenek prestakuntza jarduerak egiteko dirulaguntzaren eskabidea, behar bezala beteta.
 - Eskatzailearen NANaren edo agiri baliokidearen fotokopia.
 - Legezko ordezkariaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo agiri baliokidea eta ordezkariari dagokion egiaztagiria. Zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabiliz egiaztatu ahal izango da (notario-ahalordeak, eskriturak...).
 - Eskatzailearen banku-kontuaren titulartasunaren egiaztagiria, eskatzailearen nortasunarekin bat etorri beharrekoa. Dokumentu hauetako edozein izango da baliozkoa: banku- laburpena, libreta, banku-entitateak emandako ziurtagiria edo «Titular kontua» inprimakia, banku-entitateak behar bezala beteta eta zigilatuta.
 - Prestakuntza jarduerari dagokion matrikula-orria.
 - Langabezian egonez gero, Lanbideak emandako inskripzio-aldien ziurtagiria/txostena edo Lan bizitzaren txosten eguneratua.
 - Enplegua hobetzeko egoeran egonez gero, lan-ibilbidearen txosten eguneratua.
 - Prestakuntza jardueraren «Egokitasun-contrastea»ren agiria, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Toki Garapenerako Agentziak (Egaz Txorierri) egina, «Gai da» balorazioarekin.
- c) Zuzenketa edo akatsak:
Eskabideak oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, osatuga-bea edo akastuna bada, interesdunari eskakizuna egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen derrigorrezko agiriak eramateko. Era berean, adieraziko zaio hori egin ezean eskaeran atzera egin duela uler-tuko dela, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera eman ondoren.

**8. oinarria. — Laguntzak emateko irizpideak**

Laguntzak emateko, emakida zuzeneko araubideari jarraituko zaio, banakako ebaluazio-sistema erabiliko da eta eskabidea aurkezteko hurrenkeraren arabera jokatu da, erregistro-zenbakiaren arabera.

Dirulaguntzak ematerakoan, behar bezala beteta aurkeztutako eskabideen hurrenkerari jarraituko zaio, eta beraz, ez da norgehiagokakoa izango. Aurrekontu-mugaren barruan jokatu da beti; aipaturiko aurrekontu-zuzkidura agortu ondoren, laguntzak eten egingo dira, harik eta beste aurrekontu-zuzkidura bat egon arte.

Eskabideren bat zuzendu behar izanez gero, zuzendu beharreko dokumentazioa erregistroan aurkeztu den eguna hartuko da aurkezpen-datatzat.

Aurkeztutako eskabideak ikusita, aurrekontu-partidaren gehikuntza egitea justifikatzeko modua egongo da, beste deialdi bat egin behar izan barik.

9. oinarria. — Prozedura**a) Azterketa eta ebaluazioa**

Eskabideak baldintzak betetzen dituela egiaztatu eta izapidetzeko onartu ondoren, baloratu egingo dira, haien arteko lehentasuna ezartzeko, 8. oinarrian ezarritako haztapen-irizpideen arabera, eta irizpide horiek aplikatuta balorazio handiena lortu duten eskabideei esleitzea proposatuko da, finantzaketarako funtsak agortu arte.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 63. artikulua arabera, lortutako puntuazioaren eta, hala badagokio, aurkezteko hurrenkeraren arabera ordenatutako itzarote-zerrenda sortuko da oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete izan arren deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gaintzeagatik ontzat eman ez diren eskabideetarako. Pertsona onuradunek diru-laguntzari uko egin diotelako edo ezarritako baldintzak bete ez dituztelako gerakinik badago, organo emaileak, beste deialdi bat egin behar izan barik, dirulaguntza itzarote-zerrendako egoeraren arabera ematea erabakiko du, kreditua agortu arte.

Ebazpen-proposamena ebazteko eskumena duen organoari helaraziko zaio, eta Txorierriko Zerbitzu Mankomunitateko presidentetzak berariaz adieraziko du eskatutako dirulaguntza emango den ala ez.

b) Ebazpena

Aipatutako proposamena ikusita, Txorierriko Mankomunitateko presidentetzak ebazpena emango du.

Langabeentzat edo enplegarritasuna hobetu beharrean daudenentzat prestakuntza-ekintzak egiteko dirulaguntzak ematea xede duen ebazpenean, dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta dirulaguntza justifikatzeko modua jasoko dira.

Ebazpenak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 2021eko azaroaren 30ra artekoa izango da; epe hori igarotakoan, berariazko ebazpenik eman ez bada, dirulaguntza-eskaera onartutzat joko da.

Deialdi honen izapideak arintzeko, laguntzen eskatzaileek honako hau izan beharko dute erabilgarri: posta elektronikoko helbide operatibo bat, tramitazioak irauten duen bitartean, dokumentazioa aurkeztean detektatutako akatsak zuzentzeko, edo eskatutako laguntzak modu arin eta eraginkorrean ebazteko beharrezkoa den beste edozein errekerimenduri erantzuteko, legezko eran.

Txorierriko Mankomunitateko presidentetzaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsioa aurkez dakioko organo horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez daiteke zuzenean Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

**10. oinarria. — Laguntza ordaintzea**

Laguntzak bi ordainketatan zatituta emango dira: %50, laguntza ematen den egunean, eta beste %50, prestakuntza-ekintza egin dela eta laguntza emateko eskatutako baldintzak bete direla justifikatu ondoren, laguntza emateko baldintzak egiaztatzeko ezar daitezkeen kontrolak alde batera utzi gabe.

Horretarako, deialdi honen 11. oinarrian zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du entitate onuradunak.

Dirulaguntza ez da ordainduko pertsonak justifikazio-epea amaituta duen dirulaguntzaren bat justifikatzeko badu. Halaber, ez da ordainduko pertsonak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

11. oinarria. — Justifikatzeko agiriak aurkeztea

Laguntza horiek justifikatzeko eta haien helburua betetzeko, laguntzaren onuradun izateko eskaera egin duen pertsonak prestakuntza-ekintza egiazkoa dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du 2021eko abenduaren 31ra arte, oinarri hauetan jasotako baldintzei jarraituz.

a) Lekua eta ordutegia:

Prestakuntza-ekintzaren ziurtagiriak aurkezteko moduak:

— Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko egoitza elektronikoan.

— Sarrera-erregistroan: Derion, Txorierriko Etorbidea 9 zenbakian, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era.

Egiaztagiriek ez badituzte oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen, agiri-
ren bat falta bada edo akastuna bada, interesatuari eskatuko zaio hamar egu-
neko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak era-
mateko. Era berean, jakinaraziko zaio hori egin ezean ez-betetzat joko dela eta
dirulaguntza itzultzea ebatziko dela.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Pertsona onuradunek prestakuntza-ekintza justifikatu beharko dute, egiaztagi-
riak aurkezteko ereduaren bidez, eta honako dokumentazio hau aurkeztu behar-
ko dute horretarako:

— Inprimakia, langabeek edo enplegua hobetzeko egoeran daudenek prestakun-
tza-ekintzak egiteko emandako dirulaguntza justifikatzen duena, behar bezala
beteta.

— Prestakuntza-ekintza erabat gainditu dela egiaztatzen duen agiria.

— Prestakuntza-ekintza ordaindu dela egiaztatzen duen agiria.

— Joan-etorrien gastuak ordaintzeko eskatuz gero, ikastarora benetan joanda-
ko egunen ziurtagiria, prestakuntza-ekintza eman duen zentroak emana, eta
egindako bidaien ordainagiriak (txartelak, Barik txartel-mugimenduak, etab.).
Joan-etorria egiteko garraio partikularra erabiliz gero, dirulaguntzaren eska-
tzailea ibilgailuaren titularrak edo baimendutako pertsona dela egiaztatzen
duen agiria.

— Materialen kostua ordaintzeko eskatuz gero, material horiek derrigorrezkoak
direla egiaztatzen duen agiria, prestakuntza-ekintza eman duen zentroak
emana, eta horiek ordaindu direla egiaztatzen duen agiria.

12. oinarria. — Pertsona onuradunaren betebeharrak

Dirulaguntza hauen pertsona onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

— Oinarri hauetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzea.

— Laguntza honen kargura jasotako diru-laguntzei buruzko informazioa ematea, fis-
kalizazio-funtzioak betetzeko eskatzen zaionean.



- Unean uneko informazioa ematea hitzartutako baldintzen edozein aldaketari buruz edo kontratazioaren ondoren sortzen den edozein arazori buruz.
- Gainera, emandako dirulaguntzari buruz egokitzat jotzen den zenbat gura ikuskapen egin ahal izango da.

13. oinarria. – Ez-betetzea eta laguntza itzultzea

Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, bai eta dirulaguntza ordaintzen den unetik dagozkien legezko interesak eskatu ere, baldin eta pertsona onuradunek deialdi honetan, dirulaguntza emateko ebazpenean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte; hori guztia, ez-betetzearen ondorioz bidezkoak diren ekintzak alde batera utzi gabe.

Ez-betetzea, pertsona baztertzea, horrek dakarren itzuli betebeharra eta emateko zain dauden laguntzak jasotzeko eskubidearen galera Txorierriko Mankomunitateko presidentetzaren ebazpen bidez deklaratuko dira.

14. oinarria. – Izaera pertsonaleko datuak babestea

Pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio askea babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorriz, Txorierriko Zerbitzu Mankomunitateak jakinarazi du Oinarri hauen bidez araututako deialdiaren xede diren dirulaguntzak izapidetzeko dokumentazioan datozen datu pertsonalak prestakuntza-ekintzak sustatzeko laguntza-deialdi hau kudeatzeko tratatuko direla. Tratamendua-aren legitimazioa interesdunek adierazitako adostasunean oinarritzen da.

Emandako datu pertsonalak legez aurreikusitako aldiatarako gordeko dira; nolana ere, interesdunak datuak ezabatze eskaera egin ahal izango du. Deialdiaren xedea amaitzen den egunean, datuak blokeatu egingo dira, ez daitezela tratatu, salbu eta administrazio publikoen eta epaitegien esku jartzeko, tratamenduak eragin ditzakeen erantzukizunei erantzuteko, bakar-bakarrik erantzukizun horien preskripzio-epean.

Nolana ere, interesdunari informazioa emango zaio eta baimena emango du bere datuak aipatutako helbururako tratatzeko, bai eta aholkularitzei, erakunde publikoei, fundazioei, elkartei edo finantza-entitatei lagatzeko ere, enplegu-politika aktiboak kudeatzeko, lan-merkatuan bitartekotza egiteko eta lan-merkatuari buruzko azterlanak eta analisiak egiteko.

Interesdunek eskubidea dute euren datu pertsonaletara irispidea izateko, bai eta zuzenak ez diren datuak zuzentzeko eskatzeko ere, edo, bestela, datuak ezabatze eskatzeko, besteak beste, datuak ez badira beharrezkoak bildu ziren helburuetarako.

Egoera jakin batzuetan, interesdunek euren datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango dute; kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo defendatzeko baino ez ditugu gordeko.

Egoera jakin batzuetan eta euren egoera partikularrarekin lotutako arrazoiengatik, interesdunek euren datuak tratatzearen aurka egin ahal izango dute. Mankomunitateak datuak tratatzeari utziko dio, premiazko arrazoi legitimoengatik edo erreklamazioak egin edo defendatzeagatik izan ezik.

Erabiltzaileak eramangarritasunerako eskubidea izango du, eman dituen datu pertsonalak zuzenean beste arduradun bati helarazteko, erabilera komuneko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratuan, teknikoki ahal izanez gero.

Datuen titularrak, edo haren legezko ordezkariak, bere nortasuna egiaztatuz gero, aipatutako eskubideak baliatu ahal izango ditu helbide elektronikoa honetara mezu elektronikoa bidalita: Mankomunitatea@txorierri.eu edo posta arruntez: Txorierriko Etorbidea, 9, behea-Derio-48160.



Eskubideei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo daiteke: <http://www.avpd.euskadi.eus/>

Eskubideen titularra ez bada pozik geratu eskubide horiek baliatzean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren laguntza eskatu ahal izango du, eskubideen erabilera eraginkorra izan dadin. Horretarako, eskubideen tutoretzako erreklamazioa aurkeztu beharko du (<http://www.avpd.euskadi.eus/>).

15. oinarria. — Azken xedapena

1. Laguntzen deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.
2. Pertsona interesdunek eskabidea aurkezteak oinarriak erabat onartzea dakar.



**DIRULAGUNTZA-ESKABIDEA LANGABEZIAN EDO ENPLEGUA
HOBETZEKO EGOERAN DAUDEN PERTSONEK PRESTAKUNTZA-EKINTZAK EGITEKO
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA QUE PERSONAS DESEMPLEADAS
O EN SITUACIÓN DE MEJORA DE EMPLEO CURSEN ACCIONES FORMATIVAS**

Eskatzailea / Solicitante

Izena Nombre			
1. abizena 1.º apellido		2. abizena 2.º apellido	
NAN, IFZ,... DNI, NIF,...			
Kalea Calle			
Zenbakia Número	Km	Ataria Portal	Blokea Bloque
Solairua Piso	Eskailera Escalera	Atea Puerta	PK CP
Herria Población		Probintzia Provincia	
Herraldea País		Telefonoak Teléfonos	
Faxa Fax		e-maila e-mail	
Egoera Situación	<input type="checkbox"/> Langabezian / En desempleo		<input type="checkbox"/> Enplegu-hobekuntza / Mejora de empleo

**Dirulaguntza jasotzeko kontua (IBAN: 24 digitu)
Cuenta para cobro de subvención (IBAN 24 dígitos)**

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Legezko ordezkaria / Representante legal

Izena Nombre			
1. abizena 1.º apellido		2. abizena 2.º apellido	
NAN, IFZ,... DNI, NIF,...			
Kalea Calle			
Zenbakia Número	Km	Ataria Portal	Blokea Bloque
Solairua Piso	Eskailera Escalera	Atea Puerta	PK CP
Herria Población		Probintzia Provincia	
Herraldea País		Telefonoak Teléfonos	
Faxa Fax		e-maila e-mail	

**Prestakuntza-ekintza / Acción formativa**

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Garraioa	<input type="checkbox"/>	Ibilgailu partikularra / Vehículo particular
Transporte	<input type="checkbox"/>	Garraio publikoa / Transporte público

Adierazpenak / Declaraciones

Hau sinatzen duenak —Datuak bertan zehaztuta—, / BERE ARDURAPEAN, HAUXE ADIERAZI DU: La persona firmante, cuyos datos se indican, DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD que:
Dirulaguntza honen xede den jarduera burutzeko Para ejecutar la actividad objeto de la subvención:
<input type="checkbox"/> Beste laguntza batzuk eskatu eta/edo eskuratu dira. Si se han solicitado y/u obtenido otras ayudas.
<input type="checkbox"/> Ez da eskatu ez eskuratu beste laguntzarik; eskatu den bakarra Zamudioko Udalari eskatu zaiona izan da. No se han solicitado ni obtenido otras ayudas que la correspondiente a la solicitada al Ayuntamiento de Zamudio.
Eskatu den dirulaguntzari dagokionez / Respecto a la subvención objeto de la solicitud:
<input type="checkbox"/> Eskatzaileak deialdian ezarritako baldintza guztiak bete eta oinarriak goitik behera onartzen ditu. La persona reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y acepta íntegramente las bases.
<input type="checkbox"/> Eskatzaileak deialdian ezartzen diren baldintza guztiak EZ ditu betetzen eta/edo oinarriak EZ ditu goitik behera onartzen. El/la solicitante NO reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y/o que NO acepta íntegramente las bases.
Zerga-betebeharrei dagokionez / Respecto al cumplimiento de las obligaciones tributarias:
<input type="checkbox"/> Eskatzaileak egunean ditu indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak, eta bai Zamudioko Udalari ordaindu beharreko zerga-betebehar guztiak ere. La persona solicitante se encuentra al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, así como de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Zamudio.
<input type="checkbox"/> Eskatzaileak EZ ditu egunean indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoa, eta/edo Zamudioko Udalari egin beharrekoak. La persona solicitante NO se encuentra al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias impuestas por las disposiciones vigentes y/o con la Seguridad Social, y/o con el Ayuntamiento de Zamudio.



Dirulaguntzak itzultzeari dagokionez / Respecto al reintegro de subvenciones:

Eskatzaileak EZ du inongo zorrik dirulaguntzak itzuli behar izateagatik.
La persona solicitante NO tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.

Eskatzaileak BAditu zorrik dirulaguntzak itzuli behar izateagatik.
La persona solicitante SI tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.

Dirulaguntzen onuradun izateko debekuei dagokionez
Respecto a las prohibiciones para ser beneficiaria de subvenciones:

Eskatzailea Dirulaguntzetarako Lege Orokorraren 13.2. artikulua onuradun izateko aurreikusitako debekuren batean ere EZ dago sartuta.
La persona solicitante NO se halla incurso en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiario/a previstas en el artículo 13.2 de la Ley General de Subvenciones.

Eskatzailea Dirulaguntzetarako Lege Orokorraren 13.2. artikulua onuradun izateko aurreikusitako debekuren batean BAdago sartuta.
La solicitante SI se halla incurso en alguna de las prohibiciones para ser beneficiario/a previstas en el artículo 13.2 de la Ley General de Subvenciones.

Oharrak / Observaciones

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Jakinarazteko modua / Forma de notificación

<input type="checkbox"/>	Posta bidez (helbidea aukeratu) / Correo ordinario (seleccionar dirección)
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/> Eskatzailearen helbidea / Domicilio de la persona solicitante
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/> Legezko ordezkariaren helbidea / Domicilio de la representante legal
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/> Beste bat / Otro:
<input type="checkbox"/>	Elektronikoki-Herritarren postontzia (NANE, IZENPE): adierazi jakinarazpen-bidalketaren abisurako e-maila. Electrónicamente-Buzón ciudadano/a (DNIE, IZENPE): indicar email para recibir aviso de envío de notificación. e-mail:



Lege oharra: datu pertsonalen babesa

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Datu pertsonalen tratamenduak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko garapen ekonomikoa, enplegua eta berrikuntza bitartekoa den Behargintza Txorierriri, SL euskarri informatikoa eskaintzea du xede, aintzat hartuta interesatuak emandako baimena eta tratamenduaren arduradunari esleitutako ahalordeak, zeinak jasota dauden hurrenez hurren datu pertsonalak eta haien zirkulazio librea dela eta pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudiaren 6.1 artikulua a) eta e) letretan.

Tratamenduaren arduraduna: Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea. Telefonoa: 944 540 350.

Jakinaren gainean nago, legez:

- Nik emandako datuak goian adierazitako tratamenduan sartu eta zehaztutako helbururako erabiliko direla.
- Emandako datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztzeko, datuak eramateko, datuen aurka egiteko edo datuen tratamenduari mugak jartzeko eskubidea erabili ahal dudala posta bidez, elektronikoki (www.txorierrri.eus) edo Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko egoitzan Txorierrri etorbidea, 9an (Derio).

Advertencia legal: protección de datos personales

El tratamiento de la información tendrá en cuenta lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, y demás disposiciones que resulten de aplicación.

Los datos personales serán tratados con la finalidad de dar soporte informático a Behargintza Txorierrri, SL instrumento de desarrollo económico, empleo e innovación de la Mancomunidad de Servicios de Txorierrri en base al consentimiento otorgado por la persona interesada y al ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento contemplados, respectivamente, en las letras a) y e) del artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679 del personas físicas en lo que respecta al tratamiento de sus datos personales y a la libre circulación de estos datos.

Responsable del tratamiento: Mancomunidad de Servicios de Txorierrri. Teléfono 944 540 350.

Me doy por advertido/a legalmente de que:

- Los datos facilitados se integrarán en el tratamiento de referencia y se utilizarán para la finalidad indicada.
- Puedo ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, portabilidad, oposición o limitación al tratamiento de los datos facilitados a través del correo, electrónicamente (www.txorierrri.eus) o en la sede de la Mancomunidad de Servicios de Txorierrri sita en Avenida Txorierrri 9 (Derio).

Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura eta data
Firma de la persona solicitante o representante legal y fecha

**Aurkeztu beharreko agiriak / Documentación a presentar**

Dirulaguntza eskaerak deialdian ezarritako epean aurkeztu behar dira. Hau da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- 1) Langabezian edo enplegu-hobekuntzarako dauden pertsonen prestakuntza-ekintzak egiteko dirulaguntzaren eskaera-orria behar bezala beteta (eredua Zamudioko Udalaren webgunean, www.zamudio.eus, eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko webgunean, www.txorierri.eus, dago eskuragarri).
- 2) Eskatzailearen NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- 3) Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat eta ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).
- 4) Banku-kontuaren titulartasuna frogatzen duen agiria; eskatzaileak izan behar du kontuaren titularra. Agiri hauetako edozeinek balio du horretarako: Laburpen bankarioa; aurrezki-libreta; banketxeak luzatutako ziurtagiria edo «Titular-kontua» izeneko orria (www.zamudio.eus eta www.txorierri.eus webguneetan eskuragarri) behar bezala beteta banketxeak emandako zigituarekin.
- 5) Prestakuntza-ekintzari dagokion matrikulazio-orria.
- 6) Langabezian egonez gero, izena emandako inskripzio-aldien ziurtagiria/txostena (Lanbidek emana) edo Lan-ibilbidea txostena.
- 7) Enplegu-hobekuntzarako izena emanda egonez gero, lan-ibilbidea txostena.
- 8) «Egokitasun-contraste»ren orria «Egokia» emaitzarekin (Egaz Txorierrik emana).

Las solicitudes deberán presentarse en el plazo indicado en la convocatoria. Esta es la documentación a presentar:

- 1) Solicitud de subvención para que personas desempleadas o en situación de mejora de empleo cursen acciones formativas debidamente cumplimentada (modelo disponible en la web municipal de Zamudio, www.zamudio.eus, y en la web de la Mancomunidad de Servicios de Txorierri, www.txorierri.eus).
- 2) DNI o documento equivalente de la persona solicitante.
- 3) En caso de representación legal, DNI o documento equivalente de el/la representante legal y acreditación documental de la representación. La acreditación podrá hacerse por cualquier medio válido en derecho (poderes notariales, escrituras...).
- 4) Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria de el/la solicitante, que tiene que coincidir con la identidad de la persona solicitante. Será válido, cualquiera de los siguientes documentos: extracto bancario; libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o el impreso «Titular-cuenta» (disponible en la páginas web www.zamudio.eus y www.txorierri.eus) debidamente cumplimentado y sellado por la entidad bancaria.
- 5) Hoja de matrícula en la acción formativa.
- 6) En caso de estar en situación de desempleo, certificado/informe de periodos de inscripción emitidos por Lanbide o informe de Vidal Laboral.
- 7) En caso de estar en situación de mejora de empleo, informe de Vida laboral.
- 8) Hoja «Contraste de idoneidad» con valoración «Apta» (emitida por Egaz Txorierri).